

Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia

Office 2003, 2007, 2010 eta
2013rako

2014ko urria



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística





Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

2.

1. Hasierakoak.....	3
2. Instalazioa.....	3
3. Erabilera.....	4
3.1 Hizkuntza-aukeratzea.....	6
3.2 Lematizazioa.....	7
4. Desinstalazioa.....	9



Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

1. Hasierakoak

Eskuliburu honetan, Word testu-prozesadorean integratutako Elhuyar EU/EN Hiztegi elebiduna (Euskara-Ingelesa/English-Basque) kontsultatzeko modua azalduko dugu.

Tresna honek euskarazko edo ingelesezko hitz batek beste hizkuntzan (euskara → ingelesa, ingelesa → euskara) dituen itzulpenak edo ordainak eskaintzen dizkio erabiltzaileari.

Windows 2000/XP/Vista/Windows 7/Windows 8 sistema eragilea instalatuta duten ordenagailuetan dabil tresna hau. Hiztegi-kontsulta *Microsoft Word 2003*, *Microsoft Word 2007*, *Microsoft Word 2010* edo *Microsoft Word 2013* aplikazioan integratzen da, Microsoft Word testu-prozesagailuaren *Erreferentzia* panelean hain zuzen, beste hizkuntzetako hiztegiak kontsulta daitezkeen modu berean.

2. Instalazioa

Elhuyar EU/EN Hiztegiaren plug-in-a testu-prozesadorean integratzeko, nahikoa da *ElhuyarEUNHiztegia.msi* fitxategian bi aldiz klik egitea eta, hortik aurrera, instalaziorako laguntzaileak ematen dituen argibideak jarraitzea.



Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

4.



1. irudia: Instalatzailearen lehen pantaila

3. Erabilera

Elhuyar EU/EN hiztegian kontsulta egiteko, *Erreferentzia* panelak ikusgai egon behar du pantailan. Panela aktibatzeke hiru modu daude:

1. Goiko menutik: *Tresnak* → *Hizkuntza* → *Itzuli...* (Office 2003) edo *Berrikusi* → *Itzuli* aukeratuz (Office 2007/2010/2013)
2. Hitzaren gainean eskuineko botoiari klik eginez eta *Itzuli* aukeratuz




Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

5.

3. Hitzaren gainean ALT + klik eginez (ALT botoia sakatuta mantendu behar da klik egiten den bitartean).

Panela ikusgai dugularik, nahikoa da paneleko lehenengo kutxan kontsultatu nahi dugun hitza idaztea, ondoren iturburu-hizkuntza (ikus 2. irudian *Hemendik* zerrenda) eta helburu-hizkuntza (ikus 2.irudian *Hona* zerrenda) aukeratzea eta, azkenik, botoi berdea sakatzea azpian ordainak ikusteko. Kontsultatu nahi dugun hitza euskarazkoa bada, *Hemendik* zerrendan *Euskara* eta *Hona* zerrendan *Ingelesa (EB)* aukeratu behar dira. Ingelesezkoa bada, aldiz, *Hemendik* zerrendan *Ingelesa (EB)* eta *Hona* zerrendan *Euskara*.



2. irudia: Kontsulta baten adibidea



Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

Erreferentzia panela aktibatzeko 2. eta 3. moduak erabiliz gero, ez da beharrezkoa lehenengo kutxan kontsultatu nahi den hitza idaztea: automatikoki, kurtsorea dagoen hitza agertuko da kutxan.

Kontsultak gehiago azkartze aldera, testuaren hizkuntza ezarrita edukiz gero, ez da beharrezkoa iturburu-hizkuntza aukeratzea, automatikoki testuaren hizkuntza erabiliko baitu horretarako. Testuaren hizkuntza ezartzeko, ikus **3.1. Hizkuntza aukeratzea** atala. Jatorrizko hizkuntzak hiztegi bat baino gehiago instalaturik izanez gero, helburu-hizkuntza ongi dagoen begiratu behar da.

Dokumentu bat idazten denean, askotan gertatzen da testuan idatzitako hitza flexionatua egotea (etxeko, amaren,...) eta zuzenean hiztegi-sarrera ez izatea. Hori dela eta, kontsulta egin aurretik lematizazio-prozesua aplikatzen zaio testuko hitzari, eta bilaketak lemaren gainean egiten dira (ikus **3.2 Lematizazioa** atala).

3.1 Hizkuntza-aukeratzea

Dokumentu berri baten hizkuntza aukeratzeko, **Tresnak** menuko **Hizkuntza → Ezarri hizkuntza** (Office 2003) edo **Berrikusi → Hizkuntza** (Office 2007/2010/2013) aukeran *Euskara* edo *Ingelesa (EB)* -dagokiona aukeratu behar da.



Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

Dagoeneko osatua dagoen testu baten edo hitz bakar baten gainean hizkuntza aukeratzeko, aipatutako urrats berak egin behar ditugu, testu osoa edo delako hitza hautaturik dugula.

3.2 Lematizazioa

Testuko hitz flexionatutik (*gizartea, gizartean...*) lema (*gizarte*) topatzeko prozesua da. Lematizazio-prozesua kontsulta egin aurretik aplikatzen da, testuan idatzitako hitzaren gainean edo zuzenean *Bilatu hau* kutxan idatzitako hitzaren gainean. Lema bakoitzeko, bilaketa bat egin behar da hiztegian. Adibidez, *etxeko* hitza kontsultatzen badugu, honek hiru lema bueltatuko dizkigu: *etxe, etxeko eta etxekotu*. Hirurak hiztegi-sarrerak direnez, hiru sarreren ordainak ikusiko ditugu Erreferentzia panelaren emaitzan (ikus 2. irudia).



Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

8.

Bilatu

Bilatu hau:
saw

Itzulpena

Atzera

Itzulpena

Itzuli hitz edo esaldi bat.
Hemendik Ingelesa (EB)
Nora Euskara
Itzuli dokumentu guztia.
Itzulpen-aukerak...

Hiztegi elebiduna

1 saw.
n. zerra.

2 saw.
→ see.

(pt sawed, pp sawn, sawed) vt. zerraz ebaki/moztu, zerratu.

see.
(pt saw, pp seen) vt. 1. [perceive, watch] ikusi. 2. [visit] bisitatu, ikustatu, [doctor, lawyer] kontsultatu. 3. [accompany] lagundu, lagun egin. 4. [have relationship with] -ekin ibili. 5. [have opinion] uste izan. 6. [make sure] ziurtatu. +vi./vt. 7. [understand] ulertu. □ see you. gero arte. See you tomorrow: bihar arte. See you soon: laister arte. See you later: gero arte. See you around: ikusi arte. || seeing that. -(e)la eta, -(e)la ikusita. Seeing that he's been off sick all week he's unlikely to come: aste osoa gaixo eman duela ikusita, gaur ere ez dela etorriko esango nuke.

<see about. arduratu. He'll have to see about the electrical installation: instalazio elektrikoaz arduratu beharko du.

<see off. 1. [say goodbye to] agur esan, adio esan, agurtu. 2. (Br) [chase away] uxatu, aienatu.

<see out. 1. [escort to door] ateraino lagundu. 2. [last until end] bukaeraraino iraun. They had enough fuel to see the winter out: negua igarotzeko nahikoa erregai zuten.

<see through. 1. [not be deceived by] antzeman, igarri, sumatu. We saw through him from the start: hasieratik igarri genituen haren asmo maltzurak. 2. [sustain] aurrera egiten lagundu.

<see to. 1. [attend to] arduratu. 2. [ensure] ziurtatu.

3. irudia: Kontsulta baten adibidea (II)

Lematizazio-prozesua bereziki interesgarria da euskararen kasuan, baina ingelesaren kasuan ere aplikatzen da. Esaterako, saw hitza kontsultatuz gero, saw eta see lemak agertuko zaizkigu (ikus 3. irudia).




Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia (Office)

9.

4. Desinstalazioa

Gure tresnaren funtzioak eta baliabideak Word testu-prozesadoretik kentzeko (menu-aukera berriak...), hauxe egin behar da:

- **Hasi** menutik **Ezarpenak** [≡] **Kontrol-panela** hautatu
- **Gehitu/Kendu programak** aukera hautatu
- **Instalatu/Desinstalatu** fitxako zerrendan, egin klik bi aldiz “Elhuyar EU/EN Hiztegia” aukeran (ikus 4. irudia).



4. irudia. Programak gehitu edo kentzeko pantaila

Hori eginda, produktuak erabiltzen dituen hiztegi eta liburutegi guztiak gure sistematik ezabatu egingo dira.